

Erresistentzia handiko lentilla

HARVARD UNIBERTSITATEKO (AEB) Zhigang Suo ikerlariak zuzendutako lan taldeak ikusmena hobetzeko erabiltzen diren lenti-llen familiako materiala sortu du, baina desberdintasun handi batekin: material berria jatorrizko tamaina baino hogei aldiz luzeago bilakatu arte deforma daiteke.

Materiala hidrogela da, hau da, lenti-llen osagai bera, baina askoz ere elastikotasun eta erresistentzia handiagoak ditu: 9.000 jouleko energia jasan dezake metro koadroko. Orain arteko hidrogel indartsuenek 700 joule baino ez dute jasaten. Propietate berriak erakusteko ikerlariak bideo bat grabatu dute. Bertan ikus daiteke 64 gramoko altzairuzko bola bat 1,86 metroko altueratik lenti-llenaren gainean erortzen. Lenti-llak, tranpolin baten eran, beherantz deformatu ondoren gorantz igortzen du bola.

Material berriak, lenti-llak ez ezik, kartilago erresistenteak lortzeko aukera emango du. ■



WWW.LONGITUDEONDA.COM



Kafeina Parkinson gaitzaren aurka?

McGill Unibertsitateko (Kanada) ikerlari talde batek, Parkinson gaitza duten 61 pertsonarekin saiakuntza egin ondoren, ikusi du egunero kafeina dosi jakin batzuk hartu zituztenek askoz ere portaera hobea zutela gaixotasunaren aurrean bestek baino.

ttiki.com/42239
(Gaztelaniaz)

Txanpon baten tamainako propulstzailea

MIT ikerketa zentroko (AEB) Paulo Lozanok eraikitako propulstzailearekin ezin dira koheteak Lurretik espaziora bidali, baina behin espazioan nahikoa indarra du koheteak maniobrarazteko, eta gainera askoz ere iraupen handiagoa du ohiko propulstzaileek baino. Hori guztia, txanpon baten tamainarekin.

ttiki.com/42240
(Gaztelaniaz)

Oscar Pistorius, hankarik gabeko korrikalaria

DIAADIA.COM.AR



OSCAR PISTORIUS orain 25 urte jaio zen Hego Afrikan, peronerik gabe jaio ere. Hamaika hilabete zituela bi hankak moztu zizkioten, eta handik sei hilabetera protesiak jarri zizkioten.

Pistorius Olinpiar Jokoetan eta Olinpiar Joko Berezietan parte hartzera ailegatu da. Nola? Enpresa islandiar batek espresuki prestatutako karbono-zuntzeko bi protesiren bidez. Cheetah deituriko protesiek belaunetik behera dauden hanka zatiak emulatzea lortu dute. Gure hanken funtzioak betetzea lortu da, eta oinpean kranpoiak jarri dituzte lurrari itsatsi ahal izateko. Pistoriusen kasuan, Nike kirol etxe ospetsuari utzi zitzaion kranpoien kopurua eta kokapena zehaztea.

Protesia zenbat eta luzeago izan, orduan eta indar handiagoa ematen dio erabiltzaileari. Horregatik Nazioarteko Olinpiar Batzordeak mugatu behar izan du protesien luzera, norberaren gorputzaren tamainaren arabera. ■

Protesia zenbat eta luzeago izan, orduan eta indar handiagoa ematen dio erabiltzaileari. Horregatik Nazioarteko Olinpiar Batzordeak mugatu behar izan du protesien luzera, norberaren gorputzaren tamainaren arabera. ■



Nano-belkroa kutsatzaileak harrapatzeko

Lausanako Eskola Politekniko Federalean (Suitza) uretan egon daitezkeen kutsatzaileak harrapatzeko sistema merkea asmatu dute. Sistema Chicagotik (AEB) hurbil dagoen Michigan lakuan probatu dute, eta emaitzak ezin hobekak izan dira.

ttiki.com/42242
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera


 web garapenak


 multimedia


 aholkularitza


 edukiak


iametza
 interaktiboa
 www.iametza.com
 T.943 37 67 16